

A R I K E T A K

A D M I N I S T R A Z I O I D A Z K I A K

2 Jarraian duzun testua irakurri ondoren, bete itzazu hutsuneak ondoko elementuez baliatuz:

- amaitu aurretik
- esandakoaren arabera
- Beraren ustez
- adierazi du
- ...(a)ri dagokionez

1. Idazkariak, lehenengo eta behin, aurreko bilerako agiria irakurri du, eta batzordekideek aho batez onartu dute.

2. Udaltzain-lanpostua betetzeko egin beharreko azterketarako leku, Udaltzaingoak ibilgailuak gordetzeko erabiltzen duen aretoa proposatu du idazkariak. Kulturako zinegotzia, ordea, ez da bat etorri idazkariak egindako proposamen horrekin., areto horretan ez dago berogailurik, eta, gutxieneko baldintza hori ez dela betetzen ikusirik, azterketa egiteko herriko liburutegia toki egokiagoa dela gaineratu du.

Zinegotzi honek, eman beharreko hurrengo urratsa liburutegiko arduradunari bileran hartutako erabakiaren berri ematea litzateke, dagozkion neurriak har ditzan.

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da Kulturako zinegotziaren proposamena.

3. Bilera, udaltzainburuak, lan-arrazoiak direla eta, aurrerantzean bilerak ostiraletan egin beharrean, astelehenetan egitea nahiago duela

.....
Honen aurkako iritzirik eman ez delarik, proposamena onartu egin da.

3 Bilatu aurreko ariketan azaldu diren ondorengo hizkuntza-formen baliokideak:

- amaitu aurretik:
- esandakoaren arabera:
- Beraren ustez:
- adierazi du:
- ...(a)ri dagokionez:

A R I K E T A K

4 Bigarren ariketako testuan oinarriturik, saia zaitez bilera-deian aurrikusita zeuden hiru aztergaiak zein izan daitezkeen asmatzen.

AZTERGAIAK:

1.
2.
3.

5 Aurreko aztergaiak kontuan eduki, eta testu berari begira, jaso itzazu bilera horren ondorioz hartutako hiru erabakiak.

ERABAKIAK:

1.
2.
3.

G
R
A
M
A
T
I
K
A

6 Gotzon Garateren artikulua irakurri ondoren (16 or.), begiratu segidako testuari. Bertako hitz eta esamolde batzuk letra lodiz idatzita daude. Alda ezazu lodiz idatzitakoa Gotzon Garatek emandako aholkuen arabera.

Mikel **bere** gurasoekin bizi zen, 30 urtekoa izan arren. Bulegari **bezala** lan egiten zuen udaletxean, **Kultur** Sailean. Ostiral goiz hartan, **Mikel**, normalean kotxez joaten bazen ere, lanera oinez joatea erabaki zuen. Negu gorria zen eta hotz **asko** egiten zuen. Eskerrak lantokia nahiko hurbil **zegoela**.

Kalean zihoala, pentsatzeari ekin zion. Jakin bazekien langile ona zela, **balore** handikoa. Bulego kontuekin zerikusirik zuten gai guztiak ongi **asko** **menperatzen zituen**. Ez zekien, ordea, bere nagusiak beste horrenbeste pentsatuko **bazuen**.

Udaletxera heldu eta bere bulegora abiatu zen Mikel. Bulego **bat** zuen oso polita. Barrura sartu, begirada **bat** **bota** eta mahaia paperez beteta ikusi zuen: aurreko eguneko azken orduan nagusiak agindutako lanak. Nagusiaren betiko leloa etorri zitzaion orduan burura; hark esan ohi **zuen** **gero**: "lantoki txukuna langile txukunaren seinale da. Mahaia garbi **mantendu** behar da beti".

Bulegoan ez zegoen beste kiderik eta berak egin behar izan zuen dena. Lan ederra eman zion **paper guztien antolamenduak**.

Goiz erdia horretan eman zuen. Eguerdi aldera, **erlojua** begiratu eta, **ofizio berri** bat idatzi ondoren, **ur baso bat** edan zuen. **Astean zehar** lan gogorra egiten zuen, bai, baina asteburua hor zegoen... bere zain.

S O L U Z I O A K

- 1 Kantu-txapelketarako epaimahaia osatzearen inguruan, Alfonso Ramírez bat agertu da alkateak adierazitakoarekin. Beraren iritziz, batzordekideek ez dute prestakuntza nahikorik musikaren arloan eta, ondorioz, ezinbesteko deritzo adituek osaturiko epaimahaia aukeratzeari.

Horiek horrela, Alfonso Ramírezek berak azpimarratu duenez, irtenbiderik egokiena Euskal Kantuzaleen Elkartekoekin harremanetan jartzea eta, arazoa ezagutarazi ondoren, laguntza eskatzea izan daiteke.

Alfonso Ramírezek, bukatzeko, txapelketari zabalkundea emateko erabiltzen den txartela zaharra dela mahaigaineratu du eta berria egiteko lehiaketa antolatzea proposatu.

- 2 1. Idazkariak, lehenengo eta behin, aurreko bilerako agiria irakurri du, eta batzordekideek aho batez onartu dute.

2. Udaltzain-lanpostua betetzeko egin beharreko azterketarako lekuari **dagokionez**, Udaltzaingoak ibilgailuak gordetzeko erabiltzen duen aretoa proposatu du idazkariak. Kulturako zinegotzia, ordea, ez da bat etorri idazkariak egindako proposamen horrekin. **Beraren ustez**, areto horretan ez dago berogailurik, eta, gutxieneko baldintza hori ez dela betetzen ikusirik, azterketa egiteko herriko liburutegia toki egokiagoa dela gaineratu du.

Zinegotzi honek **esandakoaren arabera**, eman beharreko hurrengo urratsa liburutegiko arduradunari bileran hartutako erabakiaren berri ematea litzateke, dagozkion neurriak har ditzan.

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da Kulturako zinegotziaren proposamena.

3. Bilera **amaitu aurretik**, udaltzainburuak, lan-arrazoia direla eta, aurrerantzean bilerak ostiraletan egin beharrean, astelehenetan egitea nahiago duela **adierazi du**.

Honen aurkako iritzirik eman ez delarik, proposamena onartu egin da.

- 4 **AZTERGAIAK:**

1. Aurreko bilerako agiria irakurri eta, hala badagokio, onestea.
2. Udaltzain-lanpostuaren azterketarako lekua aukeratzea.
3. Eskariak eta galderak.

- 5 **ERABAKIAK:**

1. Aurreko bilerako agiria aho batez onartzea.
2. Udaltzain-lanpostuaren azterketa herriko liburutegian egitea eta bertako arduradunari horren berri ematea.
3. Batzordeko bilerak, ostiraletan egin beharrean, astelehenetan egitea.

- 6 Mikel - gurasoekin bizi zen, 30 urtekoa izan arren. Bulegari - lan egiten zuen udaletxean, **Kultura** Sailean. Ostiral goiz hartan, **Mikelek**, normalean kotxez joaten bazen ere, lanera oinez joatea erabaki zuen. Negu gorria zen eta hotz **handia** egiten zuen. Eskerrak lantokia nahiko hurbil zegoen.

Kalean zihola, pentsatzeari ekin zion. Jakin bazekien langile ona zela, **balio** handikoa. Bulego kontuekin zerikusirik zuten gai guztiak ongi asko **ezagutzen zituen (zekizkien)**. Ez zekien, ordea, bere nagusiak beste horrenbeste pentsatuko **ote zuen**.

Udaletxera heldu eta bere bulegora abiatu zen Mikel. **Bulegoa** zuen oso polita (**Bere bulegoa oso polita zen**). Barrura sartu, begirada bat **egin** eta mahaia paperez beteta ikusi zuen: aurreko eguneko azken orduan nagusiak agindutako lanak. Nagusiaren betiko leloa etorri zitzaion orduan burura; hark esan ohi **zuenez**: "lantoki txukuna langile txukunaren seinale da. Mahaia garbi eduki behar da beti".

Bulegoan ez zegoen beste kiderik eta berak egin behar izan zuen dena. Lan ederra eman zion **paper guztiak antolatzeak**.

Goiz erdia horretan eman zuen. Eguerdi aldera, **erlojuari** begiratu eta, **beste ofizio bat** idatzi ondoren, **baso bat ur** edan zuen. **Aste barruan** lan gogorra egiten zuen, bai, baina asteburua hor zegoen... bere zain.

3

• **amaitu aurretik:**

bukatu baino lehen
...(a)ri amaiera eman aurretik
...(a)ri azkena eman baino lehen
...(a)rekin bukatzeko

• **esandakoaren arabera:**

esan duenez
esandakoari jarraituz
esandakoari begira
esan duen bezala

• **Beraren ustez:**

Beraren iritziz
Beraren aburuz
Beraren esanetan

• **adierazi du:**

azaldu du
ezagutarazi du
aipatu du
jakitera eman du
mahaigaineratu du

• **...(a)ri dagokionez:**

...(a)ri helduz
...(a)ri buruz
...(a)ren inguruan